

# MENDITXIKI OULETTES DE GAUBE VINHAMALAREN MAGALEAN

*"Me sonreía con su más bella sonrisa, dejando las lágrimas a sus vecinas. Pero, ¿lo confesaré? Cuando, por última vez, paseé mi mirada sobre sus brillantes nieves, sobre sus blancas y espléndidas soledades, donde durante tantos años había sentido unas alegrías desconocidas en el llano, una gran nube pasó por mi corazón, y mis ojos se velaron..."*

*Henry Russell, "Recuerdos de un montañero".*

Pirinioetako ipar hormen artean, bada bat mendizale ororen mirespena sortarazten duen mendia, Henry Russel kondearen Vinhamala mendia alegia. Oulettes de Gaubeko aterpea kokatuta dagoen lautadatik, marrazo baten hegalararen itxura hartzen du 3299 metroko altuera duen hormatzar honek. Gaubeko korridore luzea, gailurra zapaltzeko bide sinestezin bezala marrazten da hormaren erdian. Hamaika eskalatzaileren ametsa izan da beti, edonorentzat erronka aparta dudarik gabe. Puntaseko telekabinak eta Gaubeko teleaulkiak asko errazten dute bidea ipar hormaren oinera hurbildu eta gure txikibiltariak naturaren mirari hau ezagutu dezaten.

## TESTU ETA ARGAZKIAK



**Iván Ruiz Rotaeché**  
(Amurrio, 1982)

Pyrenaica aldizkariko erredakzio taldeko kidea. Mendiko Lagunak eta Bidea orientazio klubaren bazkidea.

Zubiak isurialdez aldatzera laguntzen gaitu Vinhamala zaindari dugula





Lagunak erraz egiten dituzte hauek, banana zati batekin nahiko

Puntaseko aparkalekuan (Pont d'Espagne, 1520 m) du hasiera gure abenturak. Han banandu gara, Joseba eta Endika GR-10a jarraituz Gaubeko lakura oinez igoko dira, Miriam eta biok, berriz, txikiekin Puntaseko telekabina eta Gaubeko teleaulkia hartu ditugu, horrela, 200 metro inguruko desnibela esfortzu bezirik egin gabe lakura inguratzu. Prezioa ez da merkea, baina txikiek eskertu egingo dute egunaren amaieran.

Gaubeko lakutik hurbil, bi taldeak elkar-tu gara berriz eta, turkesa koloreko lakuaren uren mendebaldean marrazten den xendra harrisutik pausuz pausu aitzina egin dugu. Inguruko mendiak ispilu bat balitz bezala islatzen dira uraren azalean; ederrak dira naturaren gutziak... Lakuaren hegoaldean dagoen "hondartzan" atsedenaldira hartu ondoren, Pineteko bordaren parean isurialdez aldatu eta, altuera irabaziz jarraitu dugu pixkanaka igotzen, Esplumouseko ur-jauzi zaratatsua ornantzan. Behin hau atzean utzita, ibaiaren mendebalko isurialdera bueltatu gara, GR-10a hegoalderantz jarraituz.

Bidea luzea da, baina Petites Oulettes inguruko zelaietan dauden behi eta astoek txikien arreta erakarri dute. Gizakion presentziara oso ohituta daudela ematen du, astoak gure bananak gustuko baititu. Lasai asko bizitzeko paraje berezi eta ederrak dituzte hemen abere hauek.


Azken aldapatxoaren ostean, gure helmugara iritsi gara, Oulettes de Gaubeko aterpera (2151 m), Vinhamalaren ipar hormaren zaindaria. Txiki sentitzen gara halako horma ikaragarriaren aurrean. Orain ulertzen dut zerk bultzatu zuen Russell kondea mendi honetara

33 aldiz igotzera eta bere inguruetan 147 gau igarotzera, horietako gehienak berak eraikitzea agindutako kobazuloetan. Zaila da benetan mendi honen edertasuna deskribatzea, umeen harridura aurpegiak ikustea besterik ez dago.

### Orain ulertzen dut zerk bultzatu zuen Russell kondea mendi honetara 33 aldiz igotzera

Ordu luzeak emango genituzke paraje honek dituen bazterrei so. Haurrek, glaziar-rrak isurtzen duen urarekin badute jolasteko aitzakiarik, baina bueltatu beharra dugu eta, igoeran erabilitako bide berdinetik itzuli gara. Iparrerantz jaisten hasi eta paisaia berriak zabaldu zaizkigu, oraingoan Gaubeko lakuak beste itxura erakutsi digu. Bere atzean, irteera berriekin amestera bultzatzen gaituzten 2300 metro inguruko mendi malkartsuak ageri dira. Ur-jauzia eta lakua atzean utzita, haurrak bere artean hitz eginez gustura doaz, baina nekea nabarmentzen hasi dira. Gaubeko teleaulkiaren goi-estaziora berandu heldu gara, beraz, hemendik behera Pont d'Espagnera jaisten den pista jarraitu behar izan dugu oinez.

Aparkalekura iritsi baino lehen, ur-jauzi famatuaren oinean gelditu egin dugu; ezin gaitezke hemendik talde argazkia egin gabe joan, hau baita ibilbide eder honen amaiera sinatzen duen saria. Azken metroak Marcadau ibaiari jarraituz bete ditugu eta azkar iritsi gara Puntaseko aparkalekura, abiapuntura alegia.



ibilbidea luzea da eta haurrekin egiteko, sei urtetik gorakoentzat gomendatuko nuke eta, ahal bada telekabina eta teleaulkia hartu bai joaneko bidaian baita itzulerakoan ere. Patxadaz hartu, egun osorako txangoa dela kontuan izan, eta garrantzitsuen, Pirinioetako ipar aurpegi ederrena duen mendiaz gozatu!

**Ikuspegia aldatu egiten da itzuleran, 2300 metro inguruko mendien ondoan Gaubeko lakuak txikia dela ematen du**

